

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko abenduaren 30a. VIII. urtea. 2.334. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Arroyok Bilbon ematen du astea, bertan ikasten baitu, eta han ere entrenatzen du. G. O'NEILL

**Unai Arroyo** Atleta

## «Hobby bezala hasi nintzen, eta oraindik ere horrela da, egunero entrenatu arren»

Tolosarra 2011ko kirolari izendatu berri dute herriko komunikabide eta eragileek; gaztea izan arren bere lekua egiten ari da handien artean **02**

## Kolonbiari elkartasuna, Urtezaharreko krosan parte hartuz

Tolosan bihar egingo den Elkartasun Krosan jasotako dirua, Guillermo Leon Valencia eskolari laguntzeko bideratuko da **03**



Guillermo Leon Valencia eskolako haurrak, eraikina atzean dutela. HITZA

### Aizkora saioa ikusteko aukera izango da bihar, Asteasun

Urrezko Aizkolarien kanporaketa eta Urtezaharreko Txapelketa izango dira, 17:00etan **06**

### Komisarian berogailu sistema falta dela salatu dute

Erne sindikatuak Tolosako egoitzan egun batzuetan bost graduko tenperaturara iristen direla esan du **07**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

# Maite

Leitza kalea z/g • Tolosa  
943 67 09 30 • 943 67 03 38

## Opari bat egin behar duzu?

Maite estetika zentro eta lurrindegian lagundu eta aholkatuko zaitugu.

Lurrinak, tratamendu paketeak, zeta eta artilezko zapigintza, bitxiak, osagarriak...

## Unai Arroyo ◉ Atleta

2011 urteko kirolari izendatu dute Unai Arroyo gaztea, Europako Cross-Country Junior Txapelketan aritu ostean.

# «Astean 7-8 entrenamendu egiten ditut»

**Gorka Otaegi**

Xabi Alonso, Edurne Pasaban, Joseba Rojo... Tolosako urteko kirolarien zerrendak badu izen berri bat. Eta ez nolanahikoa gainera. Gaztea izanagatik ere, ondo jakin baitu Unai Arroyok (Tolosa, 1993) bere tokia egiten onenen irteerapuntu. 2011 urteko kirolari izendatu dute Tolosako kirol talde, eragile eta komunikabideek. Besteak beste, Europako Cross-Country Junior Txapelketan aritu izanak bihurtu du berezi amaitzera goazen urtea. Egutegia aldatu aurretik bere ibilbidearen erreperaso egin du HITZArekin.

**Nork piztu zizun atletismoaren harra?**

LHko 5. mailan, Juanjo Arrieta soinketa irakasleak bultzatu ninduen probatzen, lasterketetan ondo ikusten ninduelako. Kasu egin eta futboleko jokatzeari gain, atletismoan ere hasi nintzen. Gero, konturatu nintzen gehiago gustatzen zitzaidalako korri egitea futboleko aritzea baino.

**Modalitate ugaritan aritu zara.**

Bai, abiaduraz gain, iraupen-erdiko lasterketak (800 m eta 1.500 m artekoak) eta iraupen-lasterketak (5.000 edo 10.000 m-koak) egin izan ditut. Iaz erabaki genuen azken hauetan bakarrik aritzea, iraupen-lasterketetarako entrenatzen hasi nintzenez, gehiago kostatzen zitzaidalako iraupen-erdikoetan txukun aritzea.

**Hasieran, espero al zenuen onenen artean aritzea?**

Ez. Gainera, adin horretan Gipuz-

koako gutxienekoa egitea kristorena iruditzen zaizu. Hobby modura hasi nintzen honetan, eta oraindik ere horrela da, ia eguneroko entrenatzen dudan arren.

**Industria ingeniari zara. Astean hiru egunez 6-8 ordu pasatzen ditugu klasean. Baina, beste bietan klase-ordu gutxi izaten ditugu.**

**Astegunetan Bilbon bizita, han ere entrenatuko duzu...**  
Zorrotzako pista joaten naiz asteazken zehar. Tolosan nagoenetan, aldiz, Berazubira.

**Ikasle pisua, Bilbo... Parranda asko sakrifikatzen al dituzu?**  
Larunbat gauetan aterako nintzateke. Baina, igandetan entrenamendua dudanez, ezin. Ez zait gehiegi inporta. Izango dut parrandarako denborarik.

**Dieta berezirik egiten al duzu?**  
Oraingoz ez. Beti begiratzen dut pixka bat zer jaten dudana, baina ez gehiegi.

**Beraz, egun hauetan egingo duzu tripa-festaren bat...**  
Bai. Entrenamenduetan erretzen dira horiek guztiak.

**Zein fase dugu atletan baten urteak?**  
Irailean hasten da gure denboraldia. Pixkanaka hasi eta urtarilerara arte entrenamendu kopuru handia izaten dugu. Urtarriletik martxora, entrenamendu gutxiago baina azkarragoak egiten ditugu. Pista estaliko eta krosetako Espainiako txapelketetan aritzen gara. Horien ostean, atsedenditxo bat hartu eta entrenamendu motzak egiten ditugu. Uztailean,



G.O.

aire zabalean aritzen gara entrenatzen.

**Beraz, aste hauetan entrenamendu ugari egiten ari zara, ezta?**

Astean 7-8 saio egiten ditugu: astearte eta larunbatetan bina saio, eta ostegunetan jai.

**Denboraldi hasieran jarri al zenion helbururik zeure buruari?**

Bai, Europako Cross-Country Junior Txapelketarako sailkatzea eta pista estalian marka jakin batzuk lortzea. 2012an munduko txapelketa dago eta saiatuko gara aire zabaleko 10.000 m-ko proban gutxieneko denbora egiten.

**Zaila izango zen Europarako sailkatzea.**

Bai. Iaz nahiko txukun ibili nintzen kros sailkagarrietan, eta konturatu ginen bagenituela aukerak. Aurten bi kros sailkagarri egin dira: Atapuercan eta Sorian. Gutxi gorabehera, lasterketa horietako sailkapen orokorreko lehen sei korrikalariak eramatzen dituzte Europara. Zortea izan nuen.

**30. eta 40. postuen artean sailkatzeko helburuarekin joan arren, 56. geratu zara. Hala ere, esperientzia positiboa izango zen, ezta?**

Bigarren urtez han zeudenez esan zidaten lehen urtea ez dela ona izaten, nabaritu egiten dela

## ↓ Soslaia

### Urduritasuna motorra

**A**di, prest, ia! Pistan bezain azkarra da Unai Arroyo bizi zitzako arlo guztietan. Bikain uztartzen ditu entrenamenduak eta Bilbon ikasten duen industria ingeniari zara. Mutil langilea, bere egin dituen kirolean hainbeste baloratzen diren esfortzua, diziplina eta umiltasuna. Ez zaio gauzak atzeratuta uztea gustatzen, ezta korrikalariak atzean uztea ere: «Europako txapelketan harrigarria da ikustea errotik pixka bat jaistearen zentzua. Urduria zinez, entrenamenduak baliatzen ditu soberran dituen kiroleko deskargatzen. Kirola baitu zaletasun. Bestalde, nerbioak bere alde

erabiltzen ere badaki, erronka berriei aurre egin eta oztopoak gainditzeko, nahiz eta azkenaldian ez duen oztopo lasterketarik egin: «Hesi batekin estropezu egin, erori eta lesionatu nintzenetik ez dut oztopo lasterketarik egin. Agian, laster hasi beharko dut berriz». Gauzak pixkanaka eta ekinaren ekinenez lortzeak oinak lurrean izaten lagundu dio. Heldutasuna nabari zaio etorkizunaz hitz egitean. Ez baitio bere buruari lortu ezinezko eronkarik jartzen. Egiten duenarekin disfrutatzea du helburu: «Egutegiak utziko babil, ilusioa egingo lidake 2012ko Behobia-Donostia korritzea».

■ G. OTEAGI

esperientzia falta. Datorren urtean askoz hobeto aterako zaigu.

**Turismoa ere egingo zenuten Eslovenia aldetik...**

Ez, herri txiki batean egon ginen eta ez zegoen ikusteko askorik. Gainera, dendak arratsaldeko bostetan-edo ixtan dituzte.

**Badugu zereginik Afrikako korrikalarien aurka?**

Txikitatik bideratzen dituzte, askok zerbaitekin ahal izateko egiten dute korri... Hala ere, zenbaitetan ikusi ditugu atleta ez afrikarrik aurretik.

**Zenbateko garrantzia du Ivan Gallego entrenatzaileak zure kirol ibilbidean?**

Berak antolatzen dizkit entrenamendu guztiak. Lortzen dugun ia guztia berari esker da.

**Eta Tolosa CF-k?**

Behar dugun guztia ematen digu: Bidaia, ekipazioa...

**Berazubiko lanak noiz hasiko zain izango zara.**

Urtero esaten dute hasiko direla... 50 urteko gizonak harrituta geratzen dira dena 5 urte zituztenean bezala aurkitzen dutelako.

**Atletismoak badu indarrik Tolosan?**

Gero eta haur gehiago apuntatzen da, baina, heldu gutxi dago. Hala ere, San Silvestre krosetan, esaterako, gero eta jende gehiegok hartzen du parte. Nik ere San Silvestreko krosetan parte hartzen ari naiz, baina aurretik badut beste lasterketa bat, eta ikusi dugu.

**Zure izena Xabi Alonso eta Edurne Pasaban bezalakoekin parean azalduko da Usabal kiroldegiko sarreran.**

Salto handia dago gure eta beraien mailaren artean. Jendea falta zen tarteko mailak betetzeko. Ilusio handia egin dit sariak. Ez nuen espero.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Zakurrak.** Setter arrazako bi zakur eme galdu ziren pasa den Eguberri egunean, Hernialdeko Praileburu inguruan. Bata zuri-gorria da eta txipa dauka eta bestea zuri-belta da. Norbait ikusi baditu edo zerbaite badaki, deitu dezala mesedez 943 654657 edo 617 113302 telefono zenbakira.



Guillermo Leon Valencia eskolako haurrentzako proiektuak egiteko bideratzen da krosetako dirua. HITZA

## Kirola eta elkartasuna, eskutik

Biharko Elkartasun Krosean lortzen den dirua Kolonbiako eskola batera bideratuko da

**Imanol Garcia**

Urtezaharreko krosetan parte hartzeak, urtea kirola egiten amaitzea baino zerbait gehiago suposatzen du. Izenak dion bezala, Elkartasun Krosetan elkartasuna du ardatz, eta parte hartzerakoan lortutako dirua Kolonbiako Campo Alegre komunitatera bideratzen da.

Komunitate horretako Guillermo Leon Valencia eskolarekin dago senidetuuta Samaniego ikas-tetxea. Hain justu, eskola horrek eta Orixe Institutuak antolatzen dute, udalaren laguntzarekin, lasterketa. Izen ematearekin lortzen den dirua Kolonbiako eskola horretarako bideratzen da, zehazki Biblio Mula proiektua bultzatzeko. Koku-Yo elkarrearen bidetzatzen da laguntza hori.

Azken urte honetan Campo Alegre komunitateko egoera okertu egin da. 2010eko abenduan luiziak izan zituzten eta horren ondorioz hainbat kalte izan zituzten: soroak galdu zituzten, bost etxebizitzita egoera txarrean geratu ziren, luizi gehiago izateko



Eskolako haurrak, klase batean. HITZA

arriskua ere bazegoen... Guillermo Leon Valencia eskolako irakleak ere kalte handiak izan zituen. Hala, bere zutabeak eta ha-beak gaizki geratu dira, eta horrek bere estruktura iragiten dio. Bestalde, eraikinaren inguruko urak kudeatzeko zailtasunak daude. Horregatik, aurten komunitatearen eraikinean daude ikasleak. Udalerriko alkateak hitz eman duenez, datorren urtean eskolaren berreraikuntza hasiko da.

Bestalde, Koku-Yo elkarrekin azaldu duenez, Campo Alegre komunitatean «indarkeria egoera sufritzen ari dira». Koku-Yo Kolonbiako Fundacion Vital gobernuz kanpoko elkarrekin aritzen da lankidetzan. Elkarrekin horretako ordezkariak heriotza

mehatxuak jaso dituzte, inguru hartako mehategi bateko enpresaren aurka egindako salaketarengatik. «Mehategiaren jardunarengatik, Guabas ibaiaren urak kontaminatzen ari dira. Legez kanpoko jardun horrek sekulako kalteak eragiten ari da bertako ingurumenean».

### 15:30ean, benjaminak

Krosa Zerkausiarren ondotik hasiko da, bihar, 15:30ean. Hasieran benjaminak parte hartuko dute. 16:00etan alebiren txanda izango da, eta 16:30ean infantil mailakoak eta helduak aterako dira. Izena eman nahi dutenek, horretarako aukera dute bihar bertan, Zerkausian. Haurrek dohainik dute parte hartzea, eta helduek 10 euro ordaindu behar dute.

## Urteberri eguneko mezan, Mokoroaren eta Gorritiren obrak

Santa Maria musika kaperak emanaldia eskainiko du etzi, 12:00etan, parrokian bertan

**I. Garcia**

Santa Maria parrokiko musika kaperak urteko hitzordu berri bat izango du, etzi, Urteberri egunetan. Parrokian meza nagusia izango da, 12:00etan, eta bertan Eduardo Mokoroa eta Felipe Gorritiren obrak abestuko dituzte.

Alde batetik, Eduardo Mokoroak 1909an konposatutako *Misa Pastoral* abestuko dute kaperak. Hain justu, Gabon egunetan kantatzeko egin zuen obra. *Oi Be-*

*tihelem eta Belenen sortu zaigu Jainkoa* Gabon kantak abestuko dituzte, Mokoroa berak orkestrarako moldatuta. Musikariak egindako *Cantate Domino* ere interpretatuko dute.

Bestalde, Felipe Gorritik konposatutako Gaboneterako zortzi-koa abestuko dute. Gorritik 1889an sortu zuen, inñude bati entzundako herri kantabatean oinarrituz.

Kaperaren zuzendari lanetan Iñaki Ayerbe ariko da. Loreto Fernandez izango da organista. Bakarlari bezala Joxeja Garcia, Manuel Muñoa, Jexuxmari Jauregi, Javier Yarla, Axun Gaztañaga eta Maite Crespillo. 20 musikari parte hartzen dute hari eta haize orkestran, eta 70 abeslarik osatzen dute korua.

## → Laburrak

### Iturizako mus txapelketak baditu txapelak

**GIZARTEA** ▶ Iturriza elkarrekin mus azkarreko txapelketa egin berri du. Lau erregetara Josexto Telleria eta Jose Toledo izan dira irabazleak, eta bigarren Manuel Veiga eta Sandoval. Zortzi erregetara Jose Manuel Ortiz eta Angel Martinez izan dira txapelak eta bigarrenak Manuel Iriarte eta Fidel Benito geratu ziren.

### Zea Mays taldearen kontzertua, Bonberenean

**KULTURA** ▶ Zea Mays taldearen emanaldia izango da, gaur, Bonbereneako eszenatokian, 14. urtemugako ekitaldien barruan. 22:30ean hasiko da emanaldia, eta zortzi euro balio du sarrerak. Duela urte bat jo zuten bertan, diska berriaren aurkezpenean.

### Kirikiñok festa antolatuta du, 25. urteurrena dela eta

**AISIA** ▶ Kirikiño aisialdi taldeak 25 urte bete ditu. Urteurren hori ospatzeko Tolosaldeko hamar urtetik beherako neska-mutil guztientzako festa antolatu du. Urtarrilaren 4an izango da festa, San Frantzisko ibiltokiko egoitzan, 16:00etatik 20:00etara. Puzgarriak, jolasak, zozketak eta abar izango dira. Kirikiño hamar urtetik aurrerako haur eta gazteekin ibiltzen da eta oraingoan hamar urtetik beherakoentzako antolatu du festa.

### La Jodederaren doinuak gaur, Fronton kafetegian

**KULTURA** ▶ Fronton kafetegian kontzertua emango du, gaur, La Jodedera taldeak. 23:00etan hasiko da emanaldia. Abuztuaren atera zuten lehen diskoa eta bertako abestiak joko dituzte. Kubako eta euskal musika nahasten du taldeak, doinu dantzagarriak egiteko asmoz.



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

**MAHALA** ekoizlearen produktu sorta hau

**OPARI**

Bertako informazioari, bertako produktuak

**hitza** info

Harremanetarako:  
902-82 02 01  
harpidetza@hitza.info



# Kalean euskaraz abestearen ohitura jasoko du Tolosa Kantari ekimenaren DVD berriak

Bihar aurkeztuko dute, 11:30ean, Bonberenea Ekintzak zigilupean argitaratuko duten produktua

## Itzea Urkizu

Duela hiru urte sortutako Tolosa Kantari ekimeneko kideek, DVD berria kaleratuko dute. Bonberenea Ekintzak zigiluarekin, bihar aurkeztuko dute, 11:30ean Tontokalen, hamabi kantu eta erreportajea biltzen dituen lana.

2008 inguruan, euskaraz eta kalean abesteko helburuz sortu zuten Tolosa Kantari. Orduz geroztik, hilabeteko azken larunbatean iritxen dira kalera, urte garai bakoitzera egokitutako erreportoria osatuz. Kantu jirako kidea den Irati Hartsuagak azaldu duenez, Tolosatik kanpora abestera joaten hasi ziren pixkanaka, eta irteera hauetan kantu jirako parte hartzaileek argazki kamerak eramaten zituztela dio: «Batzuek grabatu ere egiten zituzten abestiak, eta konturatu ginen, irudiak piltzen ari zitzaizkigula. Orduan bururatu zitzaigun DVD bat osa-

tzearen ideia». Hasiera batean, ezagun batzuek grabaketa egiteko prestutasuna azaldu zieten. Baina Hartsuagak dioenez, «zerbait serioagoa behar zela ikusi genuen, bestela, gure gisara, ezin izango genuten material hori guztia muntatzen asmatu».

## Bonberenearekin elkarlanean

Kantu jirako irudiak grabatzearen ideia proposatu zieten Tolosa Kantariko kideek, Bonberenea koei: «Lehenago ere, bagenuen harremana Bonberenearekin, txaranga behin baino gehiagotan atera izan baita gurekin kalez kale. Bagenekien halako lanak eta grabaketak egindakoak zirela, eta proposamena luzatu genien», dio Irati Hartsuagak.

Horrela beraz, pasa den azaroaren 26ko kantu jiran hartu zituzten irudi guztiak, Tolosan bertan egindako saioan.

## Hamabi doinuren bueltan

«Hasieran, gehien kantatzen genituen abestiak, edo jendeak gustokoen dituenak grabatzea» pentsatu zutela azaldu du Irati Hartsuagak, Tolosa Kantariko kideak. Azkenean, ordea, grabaketa egun bakarrean egin zute-

nez, larunbat hartako saioan abestutako kantuak sartu dituzte DVDan. Besteak beste, Xabier Lete, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Iparragirrerren kantuak entzungai eta ikusgai izango dira, tolosarren ahotsetan.

Horrez gain, Tolosa Kantariaren inguruko erreportaje txiki batek osatuko du DVDa.

## Hamaika kultura kantuan

Hilabeteroko azken larunbatean izaten da Tolosako kantu jira, eta abenduko saioa Urtezahar egunean izango da, beraz.

Egun berezia izango da, urteko azken eguna izateaz gain, DVDaren aurkezpena ere egingo baitute. Honez guztiaz gain, ordea, gonbidatu bereziak izango dituzte Tolosa Kantariko kideek: etorkin talde bat etorriko da, Tolosako kantu jiran parte hartzera. Besteak beste, marokorak, pakistandarrak, brasildarrak edo argentinarak ariko dira euskal kantuak abesten.

Irati Hartsuagak azaldu du, Gipuzkoa osoko etorkinekin lanean aritzen den elkarte baten bidez sortu dela harremana. Elkarte honetako arduradunetako bat, emakume alemaniarra da; etorki-



Hiru urtetan zehar indarra hartu du Tolosa Kantari ekimenak. HITZA

na beraz. «Bera Alemaniatik etorri zenean, euskara ikasteko lekuak bazirela ikusi zuten. Baina berak, atzerritar bezala, premia zehatz batzuk sentitu zituela dio. Garai hartan bizi izandakotik abiatuta, hemen bizitzeko beharrezkoak diren gauzak erakusten dizkie etorkinei», Hartsuagaren arabera.

Etorkinek hizkuntzari dagozkion zailtasunak gainditzen dituztenean, elkarte honek atzerritarrei Espainiara ez direla etorri erakusten diete, Hartsuagak nabarmendu duenez; Euskal Herriara etorri direla, baizik: «Euskal

kultura erakusten diete hizkuntzaz gain, eta hemen beste zerbitzu badela».

Euskal ohiturak ezagutu eta bertan integratzeko saiakera, Urretxun ospatu zuten kantu jira erraldoian hasi zen. Etorkinen taldetxo bat elkartzten hasi zen, entseguak egiteko, eta Tolosa Kantariko kideekin harremanetan jarri ziren, hona kantura etorri nahi zutela adieraziz.

Bihar, beraz, 11:30ean DVDaren aurkezpena izango da Tontokalen, eta horren ondoren, 12:00etan hasiko da urteko azken kantu jira, beti bezala.



## harpidedun izateak badu saria

### irabazleak

#### 1 Mahala

Bi sorta

Mahala Berri baserria  
Leaburu  
Tel.: 943-67 07 24



- Iñaki Larrea Tapia (Ikaztegieta)
- Josetxo Azpeitia Altuna (Villabona)

Saridunek bi aste barru etxean jasoko dute

#### 4 Laskorain Ikastolako

Abesbatzaren  
CD-DVDa

Hamar ale



- M. Jesus Eizmendi Peñagarikano (Albiztur)
- Ruben Etxeberria Altuna (Amezketeta)
- M. Tere Eizmendi Peñagarikano (Bidegoian)
- M. Rosario Aldalur Urdanpilleta (Ibarra)
- Ion Iraola Barrio (Ibarra)
- Jesus Mari Arsuaga Azpillaga (Iruia)
- Ana Mari Eizmendi Peñagarikano (Tolosa)
- Garbiñe Zaldua Brit (Tolosa)
- Juan Miguel Calahorre Lazkoz (Tolosa)
- Mari Carmen Eizmendi (Tolosa)

Saridunek Hitzaren Tolosako egoitzan jaso behar dute DVD-a

#### 2 Gorrotxategi

Hiru turroiko bost sorta

Plaza Zaharra, 7 · Tolosa  
Tel.: 943-67 07 27 / 943-65 12 26  
www.gorrotxategi.com



- Izakun Goikoetxea Goikoetxea (Alegia)
- Amaia Maritxalar Ibarbia (Ibarra)
- Leire Tolosa Garmendia (Ibarra)
- Benito Bernabe Garzia (Leaburu)
- Bittori Tolosa Salsamendi (Tolosa)

Saridunek bi aste barru etxean jasoko dute

#### 5 Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

Bi liburur

HITZako bulegoa  
Araba etorbidea, 5 behea  
Tel.: 943 65 56 95

- Mila Iparragirre Zabaleta (Bidegoian)
- Koldo Larreta Zinkunegi (Tolosa)

Saridunek Hitzaren Tolosako egoitzan jaso behar dute liburua



#### 3 Tolosako babarrunak

Hamar babarrun poltsa  
Eusko labelarekin

San Esteban, 29 · Tolosa  
Tel.: 943-65 02 53



- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)
- Aitziber Urruzola Aranzabe (Alkiza)
- Koro Balerdi Zalakain (Amezketeta)
- Onintza Lizarra Fernandez (Ikaztegieta)
- Nekane Agirrezabala (Tolosa)
- Alpino Uzturre Elkartea (Tolosa)
- Iñaki Etxeberria Iriondo (Tolosa)
- Manoli Arteaga Labaka (Tolosa)
- Iñigo Martin Baztarrika (Tolosa)
- Nagore Abaigar (Villabona)

Saridunek bi aste barru etxean jasoko dute poltsa

#### 6 Lagu Aro GBC

Sarrera pare

Urtarrilak 3 · Asteartea  
20:00etan  
Donostiako Itunben



LAGUN ARO GBC  
Cajasol Banca Cívica  
saskibaloi partida

- Idoia Arana (Tolosa)

Saridunak, sarreren bila HITZaren Tolosako egoitzatik pasa beharko du.

# Aspertzeko betarik ez

Gabonek beraiekin oporrak ekartzen dituzte, eta batez ere, txikieneztat, ekitaldi ugari daude antolatuta

## Eneritz Maiz

Gabon egunak askorentzat opor eguna izaten dira, eta txikienez ez dute eskolarik izaten. Haur guztiak etxean daude, eta hori dela eta, haurrei zuzendutako ekitaldi ugari antolatzen dira eskualdeko herrietan.

Olentzerok ekarritako opariek jolasteaz gain, lagunekin elkartu eta era ezberdinetako ekitaldiez gozatzeko aukera dute; bai haurrek eta baita gurasoek ere. Herri batzuetan urtea bukatzeko antolatuta dituzte, eta besteetan, berria ongi hasteko izango dira.

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



Musika eta merienda izan zituzten atzo, Iruran. E.MAIZ

## ↓ Gabonetako egitaraua

### ABALTZISKETA

■ **Gaur.** *Ametsen fabrika* antzerkia izango da 17:00etan, kultur etxean. Aurretik, merienda banatuko dute, Larrunari Elkartearen.

### ALEGIA

■ **Gaur.** Gabonetako X. Pilota Topaketako finalak jokatu dira 16:00etatik aurrera herriko frontoian.

■ **Urtarrilak 1.** 11:15ean Txintxarri Abesbatzak kantatuko du meza nagusia. 12:15ean, berriz, udal hautetsiek, mandarinak eta in-txaurrak banatuko dituzte plazan.

■ **Urtarrilak 4.** Jateko masa ezberdinak egiten ikasteko tailerra izango da, kultur etxean. 10:00etatik 12:00etara.

### ADUNA

■ **Urtarrilak 2.** Irinezko orea landuko dute tailerlean. Elordi plazako lokaletan izango da 10:00etatik 12:00etara edo 17:00etatik 19:00etara.

### IBARRA

■ **Gaur.** *Beldurraren etxea* emanaldia eskainiko dute Hipo eta Tomax pailazoek. 11:00etan, kultur etxean izango da.

### IRURA

■ **Gaur.** 17:00etatik 19:00etara, filma emanaldia izango da,

Gaztelekuan. 17:30ean, *Rosi* €rosi txontxongilo emanaldia ikusteko aukera izango da, kultur etxean.

■ **Hilak 31.** 10:00etan Loatzo mendira egun pasa egingo dute, plazatik abiatuta.

■ **Urtarrilak 2.** 17:30ean, Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia haurrentzat, kultur etxean.

■ **Urtarrilak 3.** 17:00etatik 19:00etara, Gaztelekuko kide berrie ongi etorria egingo diete, eta jarraian askaria izango dute. 17:00etatik aurrera, 2-12 urte bitarteko haurrentzat jolasez beteriko arratsaldea izango da, ludoetean.

### LARRAUL

■ **Urtarrilak 3.** Ines Bengoa ipuin kontalaria izango da 17:00etan, liburutegian.

### TOLOSA

■ **Gaur.** 12:00etan, *Ziriren Jolasak* egongo dira, Zerkausian. 11:00etatik 13:30etara eta

16:30etik 20:00etara, berriz, haur parkea egongo da, doan, Zerkausian. 19:00etan, berriz, Euskaraok diskoteka izango da. Leidor aretoan, *El gato con botas* eskainiko dute, 17:00etan. Eta Topic-en, *Pequeños Deseos*, txontxongiloaren emanaldia izango da, 18:30ean.

■ **Urtarrilak 2 eta 3.** *Olentzero eta Iratxoaren jauntxoa* filma izango da 17:00etan Leidor aretoan.

### VILLABONA

■ **Gaur.** Haurrentzako I. Gabonetako parkea zabalik egongo da, arratsaldean, Bearzana frontoian.

■ **Bihar.** Oria Merkatarien elkarteak antolatuta, 10:30etik 13:30etara musika talde bat ibiliko da kalez kale giroa alaitzen. Gabonetako parkea, goizez irekita egongo da. Eta, Oinkari Dantza Taldeak antolatuta, 00:30etik aurrera Kotillioia izango da Olaederra kiroldegiko tabernan. Sarrera, doan da.

# Pilota Topaketako finalak gaur jokatu dituzte

Alegiako pilotalekuan 16:00etan hasiko dira finaleko partidak; maila ezberdin bakoitzeko partida bat jokatu dute

## E. Maiz Alegia

Gabonetako X. Pilota Topaketako finalak jokatu dituzte, gaur. Asteartean eta asteazkenean jokatu zituzten binakako pilota partidak, eta erabakita geratu dira finalera pasa diren bikoteen izenak. Finaleko partidak 16:00etatik aurrera, Alegiako frontoian jokatu dira.

Aurre-benjaminen mailan, finalera iritsi dira Joseba Rojasek eta Aiur Benaventek osatzen duten bikoa, eta Adur Irastorzak eta Jon Mikel Artolak osatzen dutena. Benjaminetan, aldiz, Iker Zubeldiak eta Peru Azurtzak, Aitor Galartzaren eta Unai Altunaren aurka jokatu beharko dute.

Alebinen mailan, Mattin Lakuntzak eta Oier Zubeldiak osatutako bikoteak, Ioritz Ugartemendiaren eta Lander Karrera-aren aurka jokatu dute.

Infantiletan, Jon Luzuriaga eta Enaitz Aizpitarte, Gorka Altunak eta Iñigo Otamendik osatzen duen bikotearen aurka lehiatuko dira. Kadeteetan, berriz, Eñaut Larreak eta Jon Irizarrek osatzen duten bikoteak, Unai Eizmendi-

## ↓ Finaleko partidak

### Aurre-benjaminak

Joseba Rojas-Aiur Benavente  
Adur Irastorza-Jon Mikel Artola.

### Benjaminak

Iker Zubeldia-Peru Azurtza  
Aitor Galartza-Unai Altuna.

### Alebinak

Mattin Lakunza-Oier Zubeldia  
Ioritz Ugartemedia-Lander Karrera

### Infantilak

Jon Luzuriaga-Enaitz Aizpitarte  
Gorka Altuna-Iñigo Otamendi.

### Kadeteak

Eñaut Larrea-Jon Irizar  
Unai Eizmendi-Benat Beloki

ren eta Benat Belokiren aurka jokatu dute partida.

Sailkapen partidak Amezketa, Altzo, Alegia eta Ikaztegiako pilotalekuetan jokatu badira ere, finaleko partidak txandakatuz egiten dituzte. Aurten, Alegian izango dira. 92 pilotarik hartu dute parte, eta guztientzat izango da saria. Era berean, merienda ere eskainiko diete.

Sari banaketara, berriz, etorkizuneko pilotariei sariak emateko, pilotari profesionalak eta afizionatuak joango dira.

**ARALAR KIROLAK**

LASKORAIN KALEA  
7 - 9 - 10 - 14  
TEL.: 943 654916  
FAXA.: 943 651727  
20400 TOLOSA

euskarazko web guneak dirulegutzak

BALONTZAK

Publiko zabalak zuzendua behar du web guneak - Zergak Tolosan pagatzen - Estuak oso onerik euskaraz lehi izateko

2010ko martxoaren 15a

TOLOSAKO UDALA

943 65 74 52

[euskaraz@tolosakoak.com](mailto:euskaraz@tolosakoak.com)

Erausketak zerbait berria martxan  
Erausketak zerbait berria martxan

OBRAK

2010ko martxoaren 15a

# Otaegik eta Otañok urtea aizkoran amaituko dute

Urrezko Aizkolarien kanporaketa eta Urte Zaharreko Txapelketa izango dira jokoan Asteasuko pilotalekuan, 17:00etatik aurrera

**Asier Imaz** Asteasu

Urteari amaiera aizkora jaialdi batekin ematea ohitura bilakatu da Asteasun. Biharkoan, gainera, eskualdeko lau aizkolarik egongo dira bertan 17:00etatik aurrera. Nagusien mailan, Urrezko Aizkolarien kanporaketa jokatuko da, eta etorkizuneko aizkolaria, Urte Zaharreko Txapelketa irabaztera joango dira Asteasuko pilotalekura. Bi lehiak binaka izango dira.

Urrezko Aizkolarien Txapelketa aurrera doa, eta kanporaketak

bata bestearen atzetik jokatzen dituzte aizkolariek. Abenduaren 18an, Rekondo leitzarra eta Mujika ibartarra kanpoan gelditu ziren. Olasagasti eta Txapartegi-aren aurka galdu ostean. Erreban-txa aukera eskualdeko beste bi aizkolarik hartuko dute, Joseba Otaegik eta Unai Otañok. Zizurkildarrak eta ibartarrak bikote sendoa egiten duten arren, igel-doarra eta aizarnatarra ez dira atzean gelditzen.

Puntako aizkolaria hauek 18 enbor ebaki beharko dituzte, 6 modalitate ezberdientan.

Unai Otañok ez du aste eroso-a pasa, gerriko minarekin ibili baita. Olasagasti eta Txapartegi bikote indartsua dela onartzen duen arren, eurek ere zer esana badutela uste du aizkolaria ibarta-



**Egin beharreko lana gogorra baino lehegarria da, eta eurak oso ongi moldatzen dira»**

**UNAI OTAÑO**  
Aizkolaria

rrak: «Leitzan jokatu zuten azken kanporaketa nahiko erraz irabazi zuten; bikote indartsua osatzen dute eta ez da erraza izango. Hala eta guztiz ere, Joseba oso



Joseba Otaegi eta Unai Otaño elkarrekin ariko dira Asteasun, bihar. HITZA



ondo ikusten dut eta eutsi egin beharko zai».

Egin beharreko lana, gogorra baino lehegarria dela uste du Unai Otañok: «18 enbor dira baina ariketak laburrak dira, eta dena eman beharra dago denbora labur batean. Besoak eta erabat helduta, hilda, gelditzen dira amaieran. Joxemari Olasagasti horrelako lanetan oso ongi moldatzen da, azkenaldian gainera ongi ikusi dute. Luis Txapartegi, berriz, espezialista da lan haue-tan. Asteasun nola moldatzen ga-ren eta zer gertatzen den ikusi

egin beharko da, baina guk ere bikote sendoa osatzen dugula uste dut».

**Alkizalet eta Irazu**

Urrezko Aizkolarien Txapelketa-ekin batera, etorkizuneko aizkolariek, Urte Zaharreko Torneoa jokatuko dute Asteasuko pilotalekuan.

Alde batetik, Jokin Alkizalete asteasuarrak eta Aratz Mugerza mutrikuarrak osatuko dute bikotea, eta bestetik, Jon Irazu zizurkildarrak eta Mikel Larrañaga azpetiarrak.

## Irudia › Ibarra



## KRISIAK IDEIA BERRIAK SORTU DITU

Krisi egoera kontuan hartuta, energia kontsumoa aurrezteko eta argi-kutsadura murrizteko asmoz, Ibarroko Udalak eta Uzturpe Ikastolak ekimen berezia egin dute. Ikastolako ikasleek argi kontsu-

morik behar ez duten apaingarriak egin dituzte, birziklatutako materialaz. Orain, herriko zuhaitz eta faroletan Gabon ukituko eskulan hauek ikus daitezke, ohiko apaingarrien aldamenean. A. IMAZ

## 'Gartxot, Itzultzako bardoa' antzerkia DVDan dago salgai

Herritarrek egindako antzerkia 7 eurotan jarri dute, Basajaunen, Kazetarian eta Amasa Okindegian

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Villabonako herritarrek *Gartxot, Itzultzako bardoa* antzezlanaren egin zuten uztailearen 23an, auzolanean eta herritar guztien aurrean. Ikuskizun hori, bideoz grabatu zuten egun horretan, eta orain DVDra pasa eta salgai jartzea erabaki dute.

Herri antzerkiaren DVDa erosi nahi dutenek, Basajaun liburu-dendan, Kazetarian eta Amasa Okindegian daukate horretarako aukera, 7 euroren truke.

Amasa-Villabonatik azaldu dutenez, ikuzkizun hunkigarri horretan ehundik gora herritarrek hartu zuten parte, eta tartean honako eragileek: Loatzo musika eskolako irakasle, ikasle eta ikasle-ohiek, Oinkari dantza taldeak, Eresargi abesbatzak, Remi Gogonan Herri Ekimenak, Hutsunea Betez emakume taldeak, Bai Euskal Herriari taldeak, Onddo Gazte Asanbladak eta Euskal Herri-rian Euskarazek.

EGUBERRI HAUETAN TEKNOLOGIA DA OPARIRIK ONENA.

**CITROËN PLAN RENOVE-A.**

**3.000 €** ARTE ZURE IBILGAILU ZAHARRAREN GATIK.\*



Jarrai gaitzazu: CITROËN preferire TOTAL

**GAUZA BATZUK**

EGUBERRIETAN BAKARRIK GERTATZEN DIRA.

Horrelako Renove Plan bat ez da egunero ikusten. Teknologiarik hoberena duten hiru modelo. Citroën C3 Visiodrive bezala, Zenith haizetakoak ditu, bere mailako nagusia. Citroën C4 berriak e-HDI teknologia mikro-hidrikoa eta Stop&Start sistema ditu. Eta Citroën C4 Picasso Visiospace autoa, duen beirako sabaiari esker kanpoaldea autoan sartzen duen monobolumena. Eguberri hauetan zure ametsak egi bihurtzea gutxiago kostatuko zaizu.



FINANZA TEKNOLOGIA

**Tolosa** ◊**ARTEA BERE JATORRIAN LEKUTU DUTE**

Artea jaio zen lekura eramateko helburuz, *From Latin*, Arseki-mena burutu zuten atzo. Huhezi fakultateko ikasleak, tartean, Olatz Artola tolosarra, daude ideiarene atzean. Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikasle hauek artearen inguruan dokumental bat ari dira egiten, eta ekimenaren bidez, arte eragileak elkartu eta beraiek sortutakoa kaleratu nahi dute. Bada, atzokoan hainbat artistak parte hartu zuten Plaza Berrian: Udaberriko dantzariak, hainbat musika taldek, bertsolariak, graffitilariak eta margolariak, besteak beste. HITZA

**Udalak saski bat zozketatuko du urtarrilaren 2an, herritar guztien artean**

Erredakzioa Leaburu-Txarama

Urte berria saski eta guzti hasi ahalko du Leaburu-Txaramako familiaren batek. Izan ere, udalaren eskutik, saski baten zozketa egingo dute urtarrilaren 2an. Ekimen honekin, udalak, nolabait «eskertza» adierazi nahi die herritarrei. Herritar bakoitzak zenbaki bat izango du, eta ONCE itxuen elkartearen zozketako zenbaki irabazlearen azken hiru zenbakidunak jasoko du saskia.

**Komisariak ez duela berokuntza sistemarik salatu du Erne sindikatuak**

Egun askotan egoitzaren barrualdeko tenperatura 5 gradura ailegatzeko adierazi dute

Iñigo Terradillos Tolosa

Erne Ertzaintzaren sindikatuko kideek elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian, Tolosako komisariaren aurrealdean, eraikinak duen berokuntza sistemaren gabezia salatuz. Sindikatutik adierazi dutenez, «berokuntza sistemarik ez izatearen ondorioz, Ertzaintzaren egoitzaren barrualdeko tenperatura askotan 5 gradura iristen da, bai agenteen zonaldean, bai eta erabilera orokorreko guneetan ere».

*Ertzaintza izozturik geratzen da* zioen kartelaren atzealdean egin zuten aldarrikapena ertzainen sindikatuko kideek. Hauek azaldu zutenaren arabera, «urteetan pairatzen ari diren arazoa da



Erne sindikatuko kideak, atzo, Tolosako komisariaren kanpoaldean. IMANOL GARCIA

egoitzaren tenperaturarena». Era berean, Herrizaingo Sailean egoeraren salaketa egin dutela hainbatetan esan dute, «baina ez dute kasurik egin».

Komisariaren kanpoaldean elkarretaratzea egin ostean, Olentzeroz mozorrotutako agente bat sartu zen komisarian «opariek». Hainbat berogailu utzi zi-



tuen eraikinaren sarreran. Sindikatuak berak eman zituen berogailu horiek, krisia ertzainengana ere iritsi dela salatuz. [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

**Bilboko manifestaziora joateko autobusean izen-ematea**

Erredakzioa

Urtarrilaren 7an, Euskal presoan alde Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Berastegi, Berrobi eta El-duainen. Gaur izango da izena emateko azken eguna. Udaletxeetan eta ohiko lekuetan egin ahalko da. 8 euro ordaindu beharko du pertsona bakoitzak, eta langabezian daudenek, ikasleek eta haurrek dohainik izango dute.

**ZUZENKETA:** Abenduaren 28ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN ALEKO 6. ORRIALDEAN, Berrobiko urtekariaren inguruko albisteetan, bertan lantzen den gaietako bat 40 urte eta gero ixtera doazen dendarena dela dio. Bada, Iturriza denda da 40 urte egin dituen, eta ez da itxiko. Barkatu eragozpenak.

◊ **Eskertza****ESKELAK**

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

-Oroimenezko meza-

**Joxepi Beldarrain**

- Goian bego -

Igandean, urtarrilak 1, Joxepi Beldarrainen aldeko meza izango da 11:15ean, Amezketako San Bartolome elizan.

Amezketako Jubilatutak



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Programazioa**

**28 KANALA**

■ **12:30.** Berbetan. ■ **13:00.** Nire herrie. ■ **13:30.** BIT. ■ **14:00.** Kafe t' erdi Larraul. ■ **14:30.** On ein! ■ **15:00.** Baratzeko loreak. ■ **15:30.** (Jarraipena). ■ **16:00.** Walker Larraul. ■ **16:30.** 28 Klip. ■ **17:00.** Ikusmira. ■ **17:30.** Bizitegia. ■ **18:00.** Estetika. ■ **18:30.** Doneztebeko feria. ■ **19:00.** Altxor txokoa. ■ **19:30.** Artearen ibilbidea. ■ **16:00.** Bidea klipak.

(\*16:30etik 20:00etarako tartea lau orduko errepikatuko dute)

**TXOLARRE IRRATIA**  
(107,6 edo [www.txolarre.org](http://www.txolarre.org))

■ **11:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia eta magazina. ■ **13:00.** Lehiaketa eta disko eskaniak. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. ■ **16:00.** Bertxoko. ■ **17:00.** 11 entzuteko. ■ **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina eta albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia. ■ **21:00.** Berbenir.

**Agurrak**



**Urte askoan Urki!**  
Zorionak bihar, hilak 31, lau urte zoragarri beteko dituzulako bakero!

**Urte bukaerako hamabi kanpaikadak Tolosa bertatik**

28 Kanalak saio berezia eskainiko du larunbatean; Santa Maria plazatik emango dituzte kanpaikadak

**Erredakzioa** Tolosa

Urtea bukatzeaz den honetan, 12 mahatsak zein kanpaikadekin jango ditugun aukeratzeko garaia ere heldu da; telebista kateetan hamaika aukera izango da, baina bada urte bukaera bertatik

bertara bizitzeko aukera ere, 28 Kanalaren eskutik. Izan ere, tolosaldeko telebistak aurtengoan ere kanpaikadak emango ditu.

Saio berezia egingo dute bihar, hilak 31, 23:20etik aurrera, eta bertan kanpaikadez gain, urteko albiste garrantzitsuenen errepaso egingo dute, urteko saio guztien laburpena, toma faltsuak, gabon agurrak, zozketa bat...

Kanpaikadak Tolosako Santa Maria plazatik emango dituzte, eta iaz bezala Miren Iriondo eta Gorka Sagarna izango dira aurkezleak.



laz ere Miren Iriondok eta Gorka Sagarnak eman zituzten kanpaikadak. HITZA

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Villabona.** Oinkarik herri afa-ria antolatu du gaurko, 21:00etan, kiroldegiko kantinan; eta 23:00etan aspaldiko musika berreskuratuko dute *Gure Txokoa oroituz* jaian.  
■ **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldearen Inauterietako Astelentako konpartsan parte hartu nahi dutenek 650 87 97 04 telefono zenbakira deitu behar dute. Lehen entsegua gaur egingo dute, 16:00etan hasita, Santa Maria plazan.

**TXOTXONGILOAK**

■ **Tolosa.** Topic zentroan *Txotxongilo paregabea izango naiz* izeneko tailerra gaur, 10:00etatik 13:00etara. Tailerra 8 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

**MUSIKA**

■ **Tolosa.** Zea Mays taldearen kontzertua gaur, Bonberenean, 22:30etik aurrera.  
■ **Tolosa.** The Romanticos taldearen kontzertua gaur, 23:00etan, Errota tabernan. Iker Piris tolosarra da taldearen partaidetako bat, eta soul-a eta funk-a jorratzen dute.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

**ETZI**

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Morant, R. Zaballarreta, 1. 943 67 36 49  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.  
■ **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**INKERNU**  
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako moztorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • [elvinkernu@gmail.com](mailto:elvinkernu@gmail.com)

**Tolosa, gertuko merkataritza**



**PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK**

P-5008



**TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA**  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)